



Arartekoaren 7/2013 Gomendio Orokorra, abuztuaren 7koa
Abokatu elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuek eta doako laguntza juridikoko lurralde batzordeek doako justiziaren onuraren eskatzaileen datu fiskalak eskuratu ahal izatea.

I. Aurrekariak

Krisialdi ekonomikoaren testuinguruan, herritarrek doako justizia izateko egindako eskaerak handitu dira eta, era berean, eskaera horiei erantzuteko baliabideak murriztu. Murrizketa horien barruan badaude pertsonalari dagozkionak; ondorioz, langileak lanez gainezkoa daude eskatzaileek legean eskatutako baldintza ekonomikoak betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko orduan.

Bi faktore horien kariaz, azken hilabeteetan pertsona horiek gehiagotan jo dute Arartekora, onura horren eskaintzan eta tramitazioan izandako atzerapenen berri emateko eta zenbaitetan epaitegira eskatzen zaien dokumentazioa osatzera bertaratzeak ekartzen dizkien denbora galtze eta oztopoak jakinarazteko. Abokatutzaren instantzia korporatiboetatik ere jakinarazi dizkigute Orientazio Juridikoko Zerbitzuek (OJZ) dituzten zailtasunak, eskaera mota horiek kudeatzeko zeregina aurrera eramatean.

Erakunde honen iritziz, horrek guztiak agerian jartzen du kudeaketan eragina duten botere publikoek lankidetzan jardun behar dutela errealitate berri honi aurre egin ahal izateko. Zeregina saihestezina iruditzen zaigu, halakorik ezean, arriskuan jar baitaiteke gizarte kohesioari begira guztiz garrantzitsua den zerbitzu hau; izan ere, zerbitzu horrek bermatzen du pertsona guztiek euren eskubidea defendatu ahal izatea auzitegien aurrean, gaitasun ekonomikoa alde batera utzita.

Hori lortzeko, besteak beste, behar-beharrezkoa da eraginkortasunean aurrera egitea, erakundeen arteko lankidetzak eskaintzen dituen aukerak ahal denik eta gehien aprobetxatuz, bai eta gaur egun existitzen diren bitarteko telematikoak ere. Foru Ogasunek zeregin garrantzitsua bete behar dute zentzu horretan, haiek emandako ziurtagiriak baitira, neurri handi batean, doako justiziaren eskatzaileei ahalbidetzen dietenak beharrezko betekizunak egiaztatzea ondarearen, jarduera ekonomikoen eta jasotako errenten inguruan. Izan ere, gaur egun, pertsona horiek ziurtagiri horiek lortu eta modu presentzialean aurkeztu behar dituzte; horrek behartzen ditu zenbait aldiz bulegoetara bertaratzerako, Administrazioaren esku dauden datuak egiaztatzeko helburuarekin. Hori guztia ez litzateke beharrezkoa izango, baldin eta OJZek eta lurralde historikoko Doako Laguntza Juridikoko Batzordeak, Justizia Sailari atxikita dagoenak, datu horiek zuzenean lortu ahal izango balituzte, betiere titularrak beren-beregi emandako baimena izanik.

Egoera hau hobetzeko eta egon litezkeen oztopoak gainditzeko asmoz, Arartekoak hiru foru ogasunen lankidetzak eskatu zuen; horrela bada, foru ogasunen erantzunak jarraian azaltzen dira.



II. Foru administrazioen erantzuna

Elkarrengandik aldentzen diren arren, hiru foru ogasunek emandako erantzunak arinak eta zehatzak izan dira; era berean, gai honetan bat datoz Administrazioaren giza baliabideak herritarrei balio handiagoa emateko jardueretan bildu behar direla adieraztean, betiere herritarrak beharrezkoak ez diren izapideetatik libratuz. Horrek guztiak pentsarazten digu erakunde honek egingo duen gomendioari harrera ona egingo zaiola.

II.1. Arabako Foru Aldundia azaldutako arazoa konpontzeko beharrezko neurriak aztertzeko eta hartzeko prest agertu da; izan ere, haren ustean, herritarrak jendaurreko izapideak betetzeaz libratzea onura bat izango litzateke herritarrentzat eta Administrazioarentzat berarentzat.

OJZak aipatzen ez dituen arren, bat dator doako laguntza juridikoko batzordeei zerga datuak lagatzeko aukerari buruz guk helarazitako argudio juridikoekin. Hala eta guztiz ere, haren ustetan, datu horiek Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak eskatu behar izango lituzke, eta, horretarako, egokitzat jotzen du lankidetzaz hitzarmen iraunkor bat ezartzea, datuak bide telematikoen bitartez laga ahal izateko.

II.2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, jakinarazi digu Foru Ogasun Sailak orain dela zenbait hilabetetatik lanean diharduela Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin zergei buruzko informazioa emateko sistema egonkor eta aldizkako bat ezarri nahian, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak doako laguntza juridikoaren onuraren tramitazioan bere zereginak betetzeko beharrezko informazioa modu arin batez lor dezan, betiere herritarrek herri administrazioen esku dauden datuak eta dokumentuak ez emateko eskubidea eraginkortasunez konplitzeko xedez.

Horretarako, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak web zerbitzu bat garatu du eta, haren bitartez, zerga izaerako informazio eskabide guztiak zentralizatu ahal izango dira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak emandako informazioa Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren sistema informatikora igorriko da, eta horrek Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren esku jarriko du, jasotako zerga informazioaren azken hartzaile gisa.

Ildo horri jarraituz, 2013ko ekainaren 17an, Foru Agindu bat eman da eta, haren bitartez, lankidetzaz hitzarmen bat onesten da; hala, hitzarmen hori gutxi barru izenpetuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren, Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren artean, betiere doako laguntza juridikoari buruzko prozeduretan zerga informazioa lagatzeko. Aldi berean, hitzarmen horretan lankidetzaren marko orokorra ezartzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak Gipuzkoako Abokatuen Elkargoari zerga informazioa lagatzeko baldintza eta prozedurei dagokienez, betiere informazio horrek aipatzen dituen pertsonen eskubideak babestuz.



Lagapenaren helburu bakarra da Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin lankidetzan jardutea doako laguntza juridikorako prozesurekin zerikusia duten zereginak betetzeko orduan, betiere laguntza hori emateko beharrezkoa denean Ogasun eta Finantza Sailak emandako ziurtagiriren bat aurkeztea edo interesdunen zerga aitortpenak edota Ogasun eta Finantza Sailak egiaztatutako komunikazioen bat jatorrizko agirian, kopia batean edo egiaztatutako batean ematea. Kasu horietan, agiri horietan agertuko den informazioa zuzenean eta Finantza eta Ogasun Sailaren baliabide informatiko bitartez lortuko da; nolana ere, horretarako, alde aurretik behar-beharrezkoa izango da interesdunen berariazko baimena, betiere Zergei buruzko Foru Arauaren 92.1. artikuluan I) idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

II.3. Eskaeraren helburuekin bat datorren arren, Bizkaiko Foru Ogasunak adierazi du ez litzaiokeela bideragarria izango juridikoki abokatuen elkargoei halako datuak ematea. Haren ustetan, hori egitea galarazten dio Konstituzioaren 18.1. artikulua bermatzen duen eskubide konstituzional garrantzitsu batek, bai eta aipatutako erakundeak zentzu hertsian, hau da, *stricto sensu*-n herri administrazioak ez izateak ere. Ikuspegi horretatik, haren ustetan, komunikazio hori kontrajarriko litzaioke Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94.1. artikulua ezarritako debekuari.

Orobat, aipatutako arautegia erreformatzeko aukera aztertzen du, betiere kasu hau arauak ezarritako salbuespenen artean jasotzeko; alabaina, haren txostenekin bat etorritik, hori ezin izango litzateke aurrera eraman garrantzi konstituzionaleko zailtasunak tarteko, salbuespen horiek balio izan behar duten xedeak ez bailirateke errespetatuko.

Azkenik, agirian jarri du ukitutako zergadunek nahiz Doako Laguntza Juridikoko Batzordeak egindako ziurtagiri eskaerei arin erantzuten diela, eta, horrenbestez, ondorioztatzen du doako laguntza juridikorako eskabideen tramitazioan izan daitezkeen atzerapenek ez dutela zerikusirik zerga administrazio gisa daukan jardunbidearekin.

III. Gogoetak

Harrigarri samarra da hiru foru ogasunen azterketa juridikoak hain desberdinak izatea aurkeztutako gaiaren bideragarritasunari buruz: Gipuzkoakoaren iritzi, antolamenduan ez dago oztoporik OJZek doako justizia eskatzen duten pertsonen zerga datuei buruzko informazioa zuzenean lortzeko, horretarako interesdunen baimenik egonez gero; Arabakoak aukera hori mugatzen du Doako Laguntza Juridikoko Batzordera; eta, Bizkaikoak, bere aldetik, uste du arautegiak galarazten duela OJZek nahiz batzordeak datu horiek zuzenean eskuratzeko aukera.

Horrekin bat etorritik, doako laguntza juridikoari buruzko arautegia izango litzateke haren tramitazioa azkarrago eta errazagoa izateko arrazoi nagusia, betiere lurralde historikoaren arabera, baina, hori ez du ematen oso arrazoizkoa denik, kontuan hartzen bada zergei buruzko foru arauak bat datozela gai horretan. Gauzak horrela, Justizia Administrazioak herritarrei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko



aukera dagoenez gero, gure betebeharra da botere publikoei eskatzea gaiari buruzko irizpideak bateratzeko. Horretarako, lehenik eta behin, oso kontuan hartu beharra dago arauzko marko aplikagarria.

III.1. Hiru lurralde historikoetan zergei buruz indarrean dagoen foru arautegiak zerga arloko datuen izaera erreserbatua adierazten du; hala eta guztiz ere, hori ez da oztopoa hiru kasuetan bat datozen zenbait salbuespenetan datu horiek lagatzeko edo hirugarrenei jakinarazteko, betiere lagapenaren edo jakinarazpenaren helburua kontuan harturik.

Kasu horietan artean dago herri administrazioekiko lankidetzari men egiten diona; salbuespen hori Arabako 6/2005 Foru Arauaren 92. artikulua 1. idatz-zatiaren I) letran jasotzen da, bai eta modu baliokidean gai hori arautzen duten Gipuzkoako eta Bizkaiko foru arauen 92.1 I) eta 94.1 I) artikuluetan ere:

“92. artikulua.- Zerga-ordainketan eragina duten datuak isilpean eduki beharra.

1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak egitean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, ondoko xedeetako baterako izan ezean:

a)

l) Herri administrazioei eta sektore publikoko gainerako erakundeei beren eginkizunetan laguntzea, zergapekoek beren datuak horretarako lagatzeko baimena eman ondoren.”

Kontua da, beraz, zehaztea ea doako justiziarako batzordeak eta OJZak, legeak zerbitzu publiko honen kudeaketan ematen dizkien zereginak kontuan harturik, hala eskatzen duten pertsonen zerga datuak komunikatzeko moduko erakundeak diren ala ez, betiere azaldutako ondorioen eta baldintzen arabera.

III.2. Estatuaren lurralde osoan horrela ulertzen da kasu bakoitzean aplikagarria den arautegi autonomikoak nahiz Doako Laguntza Juridikoari buruzko Arautegia onesten duen uztailaren 25eko 996/2003 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera; izan ere, dekretuak honako hauxe ezartzen du batzordeei dagokienez:

“Artículo 7 Funciones

Son funciones de las comisiones, en los términos previstos en la Ley de Asistencia Jurídica Gratuita, las siguientes:

a)...

b) Efectuar las comprobaciones y recabar la información que a lo largo de la tramitación de las solicitudes de asistencia jurídica gratuita se estimen necesarias, y requerir de la Administración correspondiente la confirmación de la exactitud de los datos alegados por los solicitantes, para lo cual



podrán utilizarse, a tal efecto, los procedimientos telemáticos de transmisión de datos, siempre que el interesado así lo autorice.”

Era berean, horrela ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiak, betiere Doako Laguntza Juridikoari buruzko ekainaren 19ko 110/2012 Dekretuaren 8.1. e) eta 20. artikuluetan:

“8. artikulua.- Eginkizunak.

1.- Honako hauek dira Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeen eginkizunak.

a) ...

e) Egiaztapenak egin eta beharrezkotzat jotzen den informazioa bildu, bereziki Herri Administrazioari dagokiona; ziurtagiri telematikoak eskatu eta Herri Administrazioaren datu-baseetarako sarbidea zein izango den adostu, baldin eta interesdunak aurrez horretarako baimena eman badu.”

“20. artikulua.- Jardunbidearen instrukzioa.

1.- Espedientea jaso eta gero, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak gehienez ere hogeita hamar eguneko epea izango du espedientea ebazteko, eskatzaileak aurkeztutako datuen zuzentasun eta benetakotasuna egiaztatzeko beharrezko argibideak jaso eta gero.

2.- Aurreko paragrafoan zehaztutakoa betetze aldera, batzordeak eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan azaldutako datu ekonomikoen egiaztapena jaso ahal izango du Zerga Administrazioetik edo beste edozein erakundetatik, betiere, ebazpena emateko ezinbestekoa dela uste badu.

Informazio hori batzordeko idazkariari eskatu beharko zaio, eta datuak telematika bidez igorriko dira, datuak lagatzeko Herri Administrazioekin adostutako lankidetzaren hitzarmenak eta protokoloak kontuan hartuta eta datu pertsonalak arautzen dituen araudian xedatutakoa betez.”

III.3. Abokatuen elkargoek antolatutako OJZe dagokienez, kontuan hartu beharra dago horiek zuzenbide publiko erakundeak direla eta administrazio ahalmenak bete ditzaketela; kasu horietan, haien jardura Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legeari lotzen zaio, lege horren 2. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

Horrela ezartzen du Lanbide Titulatuak eta Elkargo eta Kontseilu Profesionalei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legeak ere; izan ere, lege horren 24 j) artikulua bere funtzioen artean ezartzen du herri administrazioarekin lankidetzan jarduteko aukera interes erkideak lortzeko eta, horretarako, administrazio organoetan parte hartuko



dute haien arauetan horrela ezarrita dagoenean, horiek ezarritako baldintzekin bat. Jarraian, arauak lankidetzara hori zehazten du honela:

“25. atala.– Eskuordetutako administrazio-eginkizunak

1.– Elkargo profesionalek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren berezko eginkizunak ere bete ditzakete, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez agintzen duenean.

2.– Era berean, Euskadiko foru-administrazio eta toki-administrazio publikoen berezko eginkizunak ere bete ditzakete, kasuan kasuko administrazioko dagokion organoak xedatzen duenean erabaki, akordio edo hitzarmen bidez. Erabaki, akordio edo hitzarmen hori dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da.

3.– Eginkizun horiek noraino iritsiko diren eta nola bete behar diren erabakitzeko, eskuordetzeko xedapen, hitzarmen edo akordioan jartzen duena bete beharko da.”

Doako justiziarako batzordeei emandako zereginak zuzen bete daitezzen, arautegiak funtsezko zeregina ematen die abokatuen elkargoei; horrela bada, elkargo horiek batzordeekin nahiz Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailarekin lankidetzan jarduteko modua ekainaren 19ko 110/2012 Dekretuaren 27. artikulua 4 b) idatz-zatian ezarriko dago:

“27. artikulua.- Zerbitzuen kudeaketa.

1.- ...

4.- Horregatik, Abokatuen Elkargoek ondorengo eginkizunak beteko dituzte, besteak beste:

a) ...

b) Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren jardunbidea antolatu, zuzendu eta ikuskatu, horretarako, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeekin eta justizia-arloko sail eskudunarekin elkarlana bermatuz.”

Behin hori ezarrita, aipatu dugun dekretuak zeregin zehatzak ematen dizkie abokatuen elkargoei, betiere doako justiziarako lurralde batzordeei emandako funtzioei dagokienez, bai eskabideen tramitazioan bai interesdunek onurak eskuratzeko beharrezkoak betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko orduan:

“28. artikulua.- Orientazio Juridikoko Zerbitzuak.

1. Abokatuen Elkargo bakoitzak Orientazio Juridikoko Zerbitzua izango du, eta, Gobernu Batzordeak ematen dizkion eginkizunez gain, beste hauek ere izango ditu:





- a) *Doako laguntza juridikoa eskatzen dutenei aurretiazko aholkularitza ematea, uziak argitzeko eta bideratzeko.*
 - b) *Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko beharrezko baldintzak betetzeari buruzko argibideak ematea.*
 - c) *Idatziz nahiz telematika bidez eskabideak formalizatzen laguntzea, eta izendapen-proposamenetan laguntza ematea, dekretu honen 19.2 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz.*
 - d) *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko aginduzko agiriak interesdunari eskatzea, eta akatsak zuzentzea edo hutsuneak betetzea.*
 - e) *Eskabidean jasotako uzi nagusia aztertzea, argi eta garbi, luzaezinezkoa edo funtsik gabekoa den jakiteko.*
 - f) *Espedienteak izapidetzerakoan, dekretu honen IV. kapituluan zehaztutakoa betetzea eta, beharrezkoa den kasuetan, profesionalen izendapena Prokuradoreen Elkargoekin batera egitea.*
 - g) *Libreki aukeratutako profesionalen zerbitzu-sariak kobratzeari uko egitean, beroriek izapidetzea, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean zehaztutakoak kontuan hartuz.*
2. *Doako laguntza juridikorako eskubidea eskatzen duten pertsonak doan jasoko dute zerbitzu hau.*
 3. *Abokatuen Elkargoek beharrezko neurriak hartuko dituzte Orientazio Juridikoko Zerbitzuak herritarren eskura jartzeko eta zerbitzu horien bulegoen kokapenaren eta eginkizunen berri emateko."*

Eskubidea aintzatesteko betekizunak egiaztatzeari dagokionez, abokatuen elkargoei emandako zereginak zuzeneko zerikusia dauka laguntza letratua izendatzeko azkartasunarekin ere. Horrelaxe islatzen du aipatu dugun arau autonomikoak; izan ere, haren 19. artikuluan abokatuaren behin-behineko izendapena arautzen du: haren 1. idatz-zatiak xedatzen du elkargoak, behin eskabidea eta egiaztagiria aztertuta, izendapen hori bideratuko duela gehienez ere hamabost eguneko epean, baldin eta eskatutako onura aintzatestea bidezkoa bada; hala, organo judizialari horrela jakinaraziko dio, prozesua hasita egonez gero. Horretarako, egiaztatu beharra dauka ea eskatzaileak zenbait baldintza betetzen dituen ala ez; baldintza horien artean gaitasun ekonomikoari buruzkoak daude, artikuluko horren 5 b) idatz-zatian ezarritakotik ondorioztatzen den bezala. Izapide hori erraztu eta laburtuko litzateke eta zerbitzuaren kalitatea hobetuko, baldin eta, beharrezko ziertagiriak aurkezteko eskatu beharrean, OJZak berriazko baimena ematen duten eskatzaileen zerga datuak zuzenean eskuratu ahal izango balitu.



Azaldutako arauzko markoaren argitan, erakunde honen ustetan, abokatu elkargoak administrazio korporatibo bat dira eta legeriak funtsezko zereginak eta funtzioak ematen dizkie doako laguntza juridikoaren zerbitzu publikoa zuzen kudeatu ahal izateko; hori dela eta, hiru lurralde historikoen zergei buruzko arautegian ez dago oztoporik lurralde batzordeek nahiz OJZek doako justizia eskatzen duten pertsonen zerga datuei buruzko informazioa zuzenean lortzeko, horretarako interesdunen baimenik egonez gero.

III.4. Horrek ez du zertan kaltetu interesdunen datu pertsonalak babestea; izan ere, interesdunaren berriazko baimenaz gain, aipatutako organismoek datu horiek eskuratzeak ez luke ezagutaraziko doako justizia eskatzean aurkeztu beharreko ziurtagirietan agertzen denez gaindiko daturik: desberdintasun bakarra izango litzateke kasu honetan ez litzatekeela beste leihatila batera joan beharko horiek lortzeko eta aurkezteko, aski izango bailitzateke, onura hori eskatzean, egoera ekonomikoa egiaztatzeko beharrezko datuei buruzko fitxategi automatizatuak kontsultatzeko baimena ematea. Izan ere, gaur egun eskabideari mota horretako baimen bat eranstean zaio, betiere arestian aipatutako ekainaren 19ko 110/2012 Dekretuaren I. eranskinean ezarritako baldintzekin bat:

“Oniritzia ematen diot, eta baimena ematen diet datu horiek dauden fitxategi automatizatuaren arduradunei datuok Orientazio Juridikoko Zerbitzuari eta Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari eta Doako Justiziaren kudeaketaz arduratzen den zuzendaritzari jakinarazteko.”

Nolanahi ere, Konstituzioaren 18.4. artikuluan ezarritako datu-babesaz sor litezkeen zalantza guztiak argitzeko asmoz, datu transferentzia hori ahalbidetuko duen sistemak ziurtatu behar du berori Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatuta dauden printzipioak betez egingo dela, eta bereziki:

- Bidezketasun eta egokitasun printzipioak bete behar ditu, ez du gehiegizkoa izan behar, ezta ere bateraezina, datu horiek zein esparrutan eta zein xedekin lortu diren eta halakoei begira. Gainera, esparruek eta xedeek zehatzak, argiak eta legitimoak izan behar dute.
- Datuak jakinarazi baino lehen, berriaz horren gaineko informazio zehatza eta argia eman behar zaio datuen jabeari, eta haren baimena lortu behar da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 5 eta 6. artikuluek gai horretaz ezarritakoarekin bat etorriz.

Halaber, beharrezkoa izango litzateke ogasuneko foru agintaritzen eta doako justiziarako eskabideak erabakitzeaz eta berrikustez arduratzen diren instantzien artean informazioa jakinarazteko eta helarazteko eremu seguru bat ahalbidetzea; horretan laguntza eman dezake indarreko arautegiak ezarritako *Doako Laguntza Juridikorako Sistema Informatikoak*, ekainaren 19ko 110/2012 Dekretuaren 10. artikulua jasotako baldintzen arabera.



III.5. Jakina denez, aurkeztu dugun sistema bideragarria izan dadin, beharrezkoa izango litzateke beharrezko hitzarmenak izenpetzea; hitzarmen horietan honakoak inplikatu behar dira: alde batetik, hiru foru aldundiak; bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Saila; eta, azkenik, abokatuen elkargoak, EAEko edo Estatuko Abokatu Kontseiluaren bitartez. Hori guztia ebazpen honen II.2. puntuan azaldutako hitzarmenak ezartzen duen bezala; izan ere, haren edukia egokia iruditzen zaigu proposatu dugun ildoari begira.

Laburbilduz, honako hau guztia erakundeen arteko lankidetzaren hobekuntza bat da, eta, gainera, erakunde honen aburuz, arautegiarekin bat dator, teknikoki bideragarria da eta doako laguntza juridikoaren zerbitzuak desagertzeko daukan arriskua gutxitzen lagunduko luke, erabiltzaileen onurarako eta, gaur egun indarrean dagoen sistemarekin alderatuz, erabiltzaileen datu pertsonalak babesteko izateko eskubideari kalterik egin gabe.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua ezarritakoaren bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

GOMENDIO OROKORRA:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailari gomendatzen zaie beharrezko neurriak har ditzatela eta, hala badagokio, beharrezkoak diren lankidetzak hitzarmenak izenpetu ditzatela elkarren artean eta abokatuak ordezkatzen duten erakundeekin, orientazio juridikoko zerbitzuek eta doako laguntza juridikoko lurralde batzordeek zuzenean eta baliabide informatiko bitartez eskura dezaten beharrezko zerga-informazioa, betiere Doako Laguntza Juridikoari buruzko 1/1996 Legeak eta ekainaren 19ko 110/2012 Dekretuak doako laguntza juridikoaren onuraren tramitazioari begira ematen dizkien zereginak betetzeko. Informazioa ondorio horietarako bakarrik erabili ahal izango da eta, edonola ere, lortu ahal izateko, alde aurretik eskatzaileen berriazko baimena beharko da, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 4, 5 eta 6. artikuluetan ezarritakoaren arabera.